


GIZARTE ZERBITZUAK KONTU EMATEA 2017/2018



EKINTZA PLANAREN EBALUAZIOA – 2018



Tolosatzen aurrekontuak urtez-urte



Ildo estrategikoak plangintzaren baitan

1,1

Tolosako gizarte
zerbitzuak
guztionak, guztiontzat

1.1.1

GIZARTE ZERBITZUAK EZAGUTARAZI

1.1.2

GIZARTE ZERBITZUKO ARRETA-ZERBITZUA HOBETU

1.1.3

GIZARTE ZERBITZUAK LANDA-AUZOETARA GERTURATU

1.1.4

GIZARTE OSASUNTSUAGO ETA INKLUSIBOAGO BAT HELBURU,
PREMAZKO ALORRETAN ERAKUNDEEN ETA ERAGILEEKIN
ELKARLANA SUSTATZEKO LAN MAHAI PERMANENTEAK ERATU

1.1.5

GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN JARDUTEN DUTEN
ELKARTEEN ELKARLANA SUSTATU

1.1 TOLOSAKO GIZARTE ZERBITZUAK GUZTIONAK, GUZTIONTZAT



1.1.1 GIZARTE ZERBITZUAK EZAGUTARAZI

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- **Gizarte zerbitzuei buruzko gida bat egin eta dibulgazio kanpaina burutu. Gida honek hizkuntza ez-sexista erabiliko du eta saihestuko ditu emakumeen irudi estereotipatuak.**

Ekintzak

Betetze maila

2017

- Gida egituratzeko oinarri izango diren baliabide eta programak zerrendatzen eta ordenatzen hasi gara.
Gida 2018ko lehenengo seihilekoan egitea aurrikusten dugu.

% 25

2018

- Gida egituratzeko oinarri izango diren baliabide eta programak zerrendatzen eta ordenatzen hasi gara.
Gida 2018 amaitzerako eginda egotea espero dugu .

% 50

1.1 TOLOSAKO GIZARTE ZERBITZUAK GUZTIONAK, GUZTIONTZAT



1.1.2 GIZARTE ZERBITZUKO ARRETA-ZERBITZUA HOBETU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:


- **Irisgarritasuna bermatu eta arreta protokolo berritu.**

Ekintzak

2017-2018

- Arreta egiten den bulegoetarako sarrera egokitu da, oztopo fisikoak gainditu direlarik. Arreta protokoloa 2018ko lehenengo seihilekoan berrikustea aurrakusten dugu.

Betetze maila



1.1 TOLOSAKO GIZARTE ZERBITZUAK GUZTIONAK, GUZTIONTZAT



1.1.3 GIZARTE ZERBITZUAK LANDA-AUZOETARA GERTURATU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Gutxienez 2 landa-auzotara bisitak egitea urtero.

Ekintzak

2017-2018

- Gidaren aurkezpena eginez hasiko ditugu bisita hauek. 2019ko lehenengo seihilekoan

Betetze maila



1.1 TOLOSAKO GIZARTE ZERBITZUAK GUZTIONAK, GUZTIONTZAT



1.1.4 GIZARTE OSASUNTSUAGO ETA INKLUSIBOAGO BAT HELBURU, PREMIAZKO ALORRETAN ERAKUNDEEN ETA ERAGILEEKIN ELKARLANA SUSTATZEKO LAN MAHAI PERMANENTEAK ERATU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- **Elkarlan-hitzarmenak alorrez alor sinatu edota lan-mahaiak martxan jarri aipatu alorretan. Lan-mahai horiek osatzeko, kontuan izango da emakume eta gizonen kopurua orekatua izatea edota berdintasunean formazioa jaso duen pertsona batek parte hartzea.**

Ekintzak

Betetze maila

2017

- Gizarte-zerbitzu, osasun-zerbitzu eta eskolen arteko koordinazio mahaia indartzen jarraitu da.
- Tolosako inmigratio mahaiairekin elkarlana estutzen hasi gara.
- Pobrezia kasu larrietan eskuartean izaten ditugun baliabideak. Barne lana egina dugu (baliabide ekonomikoak, etxebizitzak,...) baina beste erakundeekin elkarlana estutzeko bidea topatu behar dugu.

% 75

2018

- Gizarte-zerbitzu, osasun-zerbitzu eta eskolen arteko koordinazio mahaia indartzen jarraitu da.
- Migrazio teknikaria aldatu ondoren, harremana indartzen jarraituko dugu.
- Pobrezia kasu larrietan eskuartean izaten ditugun baliabideak. Barne lana egina dugu (baliabide ekonomikoak, etxebizitzak,...) baina beste erakundeekin elkarlana estutzeko bidea topatu behar dugu.

% 75

1.1 TOLOSAKO GIZARTE ZERBITZUAK GUZTIONAK, GUZTIONTZAT



1.1.5 GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN JARDUTEN DUTEN ELKARTEEN ELKARLANA SUSTATU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- **Elkarteen arteko topaketa antolatu.**

Ekintzak

Betetze maila

2017

- Elkarre gehienak bolondresez osatuta daudenez eta Gazteriak boluntariotzaren nazioarteko eguna bisualizatu nahi duenez, ekintza konkretu honetan beraiekin bat egin eta elkarre eta bolondresen arteko topaketa egitea erabaki dugu. Ideia finkatu dugu eta lantzen hasi gara, abenduaren 1ean egiteko topaketa hori.

% 50

2018

- 2017ko abenduaren 1ean ospatu zen lehenengoz izaera sozialeko elkarreen arteko topaketa arrakastatsua. 2018ko urrian egin da bigarren ekimen bat.

% 100